

DONIBANE LOHIZUNE ETA ZIBURUKO IBILBIDEAK

BADIAN ZEHAR



VILLES
& PAYS
D'ART &
D'HISTOIRE

Donibane Lohizune eta Ziburuko badia Bizkaiko golkoan dagoen babeslekua da. Itsasoaren eta mendien artean kokatua da eta itsasoko iragan aberatsa erakusten du. Badiako herriarteko sindikatuak ondare paregabe hau agerian emateko neurri andana bat hartu du. Hala, 2016an, “Arte eta historia herrialdea” labela onartu zitzaion lurraldeari.

Ibilbideak gertakariaren lehen edizioa aukera ezin hobea da gure lurraldea ezagutzeko. Izan ere, Ondare Gune Nabarmenez betea da, hala nola 1186an idatziz aipatu zen lehen parrokia, kortsarioen hiriko eraikin enblematikoenak, opor lekuaren arkitektura-laborategia... Bi ibilbidetan barna, karrika historiko edo gordeetan ibiltzera gonbidatzen zaituztegu, autonomia osoan; denboran gibelera egingen duzue, eta, hala, bi hiri banaezin horien paisaia moldatu duten mendeen eragina sentituko duzue.

Donibane Lohizune eta Ziburuko arkitektura-, natura-, paisaia-ondarearen eta ondare immaterialaren balioa agerian ematen duten ezinbesteko lekuak hautatu ditugu, zuentzat. Beraz, zuen erritmoan ibil zaitezte eta leku zoragarri hauek hurbiletik ezagut itzazue.

Jean-François IRIGOYEN

Donibane Lohizuneko auzapeza
Donibane Lohizune eta Ziburuko
badiako sindikatuaren lehendakaria

Argazki kredituak

Frantziako Liburutegi Nazionala; azala, 8. or. (1)
Écomusée de Marquèze -PNR / Fonds Émile Vignes:
19. or. (3), 21. or. (3)
Fonds Konarzewski: 9. or. (3), 15. or. (3)
Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa:
14. or. (1 eta 2), 24. or. (1), 32. or. (1), 34. or.
(1etik 3ra).
Baionako mediateka: 7. or.
Musée du Mans: 8. or. (2)

Akitaniako Museoa: 10. or. (2), 27. or. (3)
Donibane Lohizuneko herria: 30. or. (2), 33. or. (2)
Raphaële Connesson: 25. or. (3)
Christophe Herbreteau: 26. or. (1)
Henry Lereboure: 16. or. (1)
Bruno Floquet: 31. or.

Beste argazki guztiak Donibane Lohizune eta Ziburuko
arte eta historia herrialdearen jabeagoak dira.

Testuak

Amandine Guindet-en zuzendaritzapean

Maketa

Studio Symbole
d'après DES SIGNES
studio Muchir Desclouds 2018

Inprimatzea

Abérardère inprimategia

5 PAISAIK

6 BADIA MENDEETAN ZEHAR

12 LEKU BATETIK BESTERA

Hiri barneen itzulua

22 LEKU BATETIK BESTERA

Badiaren itzulua

32 OHITURAK ETA IDENTITATEAK

1. Itsas ezpondetako kareharrizko eta tupazko flyschak, Santa Barbaran.

2. Urdazuri, Donibane Lohizune eta Ziburu bereizten dituen ibaia.



PAISAIAK

DONIBANE LOHIZUNE ETA ZIBURUKO BADIA MENDIEN ETA OZEANOAREN ARTEKO ELKARGUNEA DA. KONTRASTEZ BETERIKO PAISAIA EDER ANITZ ESKAINTZEN DITUE OZEANO, ERREPIRAK, HAREAZKO HONDARTZAK, ITSAS EZPONDA ARROKATSUAK ETA ORDOKIAK.

KOSTALDE ARROKATSUA ETA HONDARTZAK

Pirinioetako mendilerroaren muturrean, bederatzi kilometro luzeko kosta arroakatsua eta hondartzek paisaia-irudi zoragarria eta hauskorra eskaintzen dute. Iberiar eta europar plaka tektonikoen bateratze eta elkar jotzearen ondorioz, itsasbazterren ezaugarri nagusia da itsas ezpondetan plegu handi etzanak dituzten arrokak azaleratu zirela aspaldiko flyschak deitzen zaie, eta kareharrizko geruza geologiko gogorak eta tupazko geruza geologiko bigunak aldizkatuz osatzen dira. Sistema hau hauskorra da, eta, horregatik, kosta-lerroaren gibelatzean parte hartzen du.

BADIA

Berez Santa Barbara eta Zokoako lurmuturrek badia babesten dute. Horregatik, bi kilometroko babesleku naturala da. Baina, itsasoaren oldar base geriza leku hau behin eta berriz mehatxatzen zuten horregatik, XIX. mendean, itsas harresiak eraiki ziren Zokoa, Artha eta Santa Barbarako lehengo ordoki arroakatsuetan. Orain, badiak kontraste handiko eguneroko ikuskizuna eskaintzen du: ur eremu zabal eta lasaia eta itsas harresiak klaskatzen dituzten olatu indartsuak. Kostatik, Lapurdiko paisaia-identitatearen ezaugarri nagusia den Larrun mendiaren itxura ezagunak Pirinioetako lehen mendiak seinatzen ditu.

ERREPIRETATIK HARAN TTIPIETARA

Urdazuriko haranaren irekiduran, errepirez osatutako paisaia batek bi herrien lurraldea partekatzen du. Mareen menpeko lur horiek mendixka eta gain oihantsu zerrenda luze bat osatzen dute. Lur horiek paisaia-balio nabarmena dute. Etxeekilako paisaiaren hegian, larre eta oihan horiek arnas guneak osatzen dituzte.



BADIA MENDEETAN ZEHAR



PALEOLITOA, LEHEN GIZA AZTARNAK

Badiaren gainetan bi aurpegiko ebakigailuak eta karrakagailuak aurkitu izanak frogatzen du duela ehun mila urte baino gehiago, Behe Paleolitoan, badien gizakiaren presentzia izan zela. Aurkitutako tresnen zati bat Kretazeo Berantiarreko flyschetik datozen silixezko plakatxoen gainean moldatua izan zen, eta horrek erakusten du Paleolitotik glaziazio ondoko garaia arte (- 9.000 urte) gizakia bertan bizi izan zela.

Neolitoko harri leunduzko aizkorak aurkitu izanak, gainera, konfirmatzen du badien jende multzo sedentarioak behin-betiko finkatzearen eta laborantzako eta artzaintzako jarduera agertzearen aldeko hipotesia.

Ondoko aroei buruzko ikerketa zabalek, Brontze Arotik Antzinarora, ez dute balio izan bizitegien balizko lehen itxuren xehetasunak biltzeko. Hala ere, K.o. 17. eta 267. urteen artean datatutako zubi baten aztarnak aurkitu izanak pentsarazten digu badiaren lurraldea Baiona eta Irun lotzen zituen zirkulazio-ardatz garrantzitsuan zegoela.

1. Esquerrenea etxea, 1558ko espainiarraren bipiltzea baino lehenagoko herriaren lekuko bakarra.

2. Balearen kostaldeko ehiza, Erdi Aro arte.
J. Matham-en grabadura, (1598) *Lehorreratutako kaxalotea Bidarteko hondartzan.*



XII. MENDETIK XV. MENDERA, SANCTUS-JOHANNES-DE-LUIS ETA SUBIBOURE

Iduri luke lehen jende multzo bat Akotzen gainetan finkatu zela, “Pagazu” izeneko parrokiaren inguruan, 1000. urtean guti gorabehera. Donibane Lohizuneko herriaren lehen aipamena 1186. urtean agertzen da. Baionako diocesako kartularioak «Sanctus-Johannes-de-Luis» parrokia aipatzen du. Toponimiak eztabaida luzeak eragin baditu ere, herriaren euskal izena Donibane Lohizune da, eta Jondoni Joanes Batista patroï santuari erreferentzia egiten dio, hots, “Donibane”, eta leku intatsuari edo lohi guneari ere, hau da, “Lohizune”.

Bestaldean, parrokia horren parean, portua zeharkatuz, Subiboure auzoa zegoen, “zubiaren burua”, Urruñako herriari lotua eta 1023tik aipatua.

Bi parrokiak Ingalaterrako erresumari integratuak izan ziren Leonor Akitaniakoaren ezkontzaren ondotik (1152tik). Portuaren inguruan hedatu ziren eta balea ihiziaz haien garapen ekonomikoa ekarri zuen.

XVI. MENDEA, ARRANTZA HANDIAK

XVI. mendean, badiako marinelak bakailao sarda handien xerka joaten ziren, Spitzberg-era lehenik, eta gero Ternuara. Aldi berean, balea ehizatzeko leku berriak aurkitu zituzten. Orduan, ur handitako arrantza garatu zen. Arrantza-lurralde berri horiek aurkitzearen ondorioz, 1463an Luis XI.ak salgaiak sartzeko eskubideei uko egitearen ondorioz eta sarbide estuko Baionako portuaren gainbeheraren ondorioz, portua garatu ahal izan zen.

XVI. mendean, espainiarren sarraldi ugariak bi herriak behin eta berriz suntsitu zituzten, 1512an, 1523an, 1542an eta, batez ere, 1558an. Esquerrenea etxeak eta Donibaneko elizaren oinarriek bakarrik erakusten dituzte orduko herrien aztarnak. Testuinguru gatazkatsua izanik ere, itsas jarduera ez zen nehoiz gelditu. Hain zuzen, Elizak inposatu mehe egiteko egunez baliatuz, donibandar eta ziburutar arrantzaleek fortuna berria bildu zuten bakailaoaren arrantzari esker.

1023an, Lapurdiko bizkondeak Donibane Lohizuneko baroierria sortu zuen, eta, 1160an, Baionako katedraleko kapituluko kalonjeei eskaini zien. Haiek, donibandarrekin zituzten gatazkez asperturik, 1570ean baroierria saltzea onartu zuten.



XVII. MENDEA, SORGINKERIA AUZIETATIK URREZKO ARORA

1555ean, haien parrokia sortzea lortu ondoren, Subiboure auzoan bizi ziren ontzizabe aberatsak, 1603an, parrokia Urruñatik libratzea lortu zuten. Orduko testuingurua berezia zen; botere harremanak berrantolatzen ari ziren. Portuaren jabe ziren klan nagusien arteko gatazkak 1609an bururatu ziren, sorginkeria auziak hasi zirelarik, justu. Pierre De Lancrek adierazitako kondenen ondorioz traumatizatua eta zatitua zen biztanleriaren begipean, Errekoletoen komentu bat eraiki zen, 1613tik goiti, donibandarren eta ziburutarren arteko harremanak baretzeko.

1627an, Espainiarekin etengabeko gatazken garaian, ozeanoari buru egiten zion gotorleku militar bat eraiki zen, 1621ean zulatutako Zokoako portuan. Testuinguru hartan, kortsarioaren jardueraren garapena handia izan zen, eta, laster, bale ontziak eta bakailao ontziak kanoiz hornitzen hasi ziren, irabazi oneko ekonomia berri hartan parte hartzeko. Etekin horiek aukera eman zieten ontzizabe-familiei herrian luxuzko jauregiak eraikitzeko, hala nola, Joanoenia, Lohobiague-enea edo San Estebenia. Gaur egun ere, etxe hauek zutik jarraitzen dute, portuaren bazterrean. Urrezko aro honek biztanleriaren emendatzea

eragin zuen, eta, laster, ttipiegiak bilakatu ziren Jondoni Joanes Batista eta Jondoni Bixintxo elizak handitu behar izan ziren.

Mendearen bigarren zatiaren gertakari nagusia Mazarin kardinalaren egonaldia izan zen, Frantziako eta Espainiako konferentzien denboran; orduan, Pirinioetako hitzarmena sinatu zen, eta, gero, 1660ko ekainaren 9an, Donibane Lohizunen, erregeren ezkontza ospatu zen. Hala, hilabete batez baino gehiagoz, Luis XIV.aren eta Maria Teresa infantearen presentziak, gortearekin batera, badiako bizia animatu zuen. “Donibane Lohizune Paris ttipia, Baiona bere zalditegia eta Ziburu bere arrandegia” erran zaharrak erregeren ezkontzak herriari ekarritako ospea oroitarazten du. 1670etik goiti, Frantziako erresumako gerlek eta marinelen erreklutamendu intentsiboak portuari langileak kendu zizkioten, eta horrek urrezko aroaren amaiera seinatu zuen.

1. Donibane Lohizune eta Ziburu,
1700 inguruan.

2. Luis XIV.aren eta Espainiako infantearen ezkontza.

3. Ibilaldia Donibane Lohizuneko hondartzan,
1910 inguruan.

4. Badia babesten duten Santa Barbarako, Arthako eta Zokoako itsas harresiak.

XVIII. MENDEA, OZEANOKO HONDAMENDIAK

XVII. mendearen amaieran, badia babesten zuten hesi naturalen higadurarengatik, portuko bi herrien geroa ilundu zen. 1707tik goiti berme-hormak eraiki ziren, baina, 1782ko ekaitz gogoangarriaren ondorioz, Donibane auzorik zaharrena behin betiko desagertu zen. Naturaren mehatxuei gaineratu behar zaie gainbehera ekonomikoa. Izan ere, Utrechteko (1713) eta Parisko (1773) itunen ondorioz, Ternuako arrantza-lurraldeak galdu ziren. Marinelek beste soluzio komertzial bat aurkitu zuten tokiko sardinaren arrantzarekin eta gazitzeko lehen lantegien instalazioarekin. Baina, lehiari eutsi arren, Donibane Lohizune eta Ziburuko portua galbidean zen, eta jendez azkarki hustu zen, 1660an 16.500 biztanle izatetik 1774an 4.500 biztanle izatera pasa baitzen.

Frantziako Iraultzan, bi herriek bakarra osatu zuten. Chauvin-Dragon izena ezarri zioten (1793-1795).

XIX. MENDEA, LEHEN ITSAS BAINUEN HARTZEA ETA BADIAREN BABESTEA

XIX. mendearen hasierak ez zuen deus onik iragarten. Izan ere, 1822an, beste ekaitz bortitz bat izan zen. Baina, itsas-bainuen moda agertzeak eta 1843tik goiti lehen bainuetxeak sortzeak ekonomia berri baten aukera zabaltu zuen, betiere ozeanoa baliatuz. 1854an badia behin betiko salbatu zen, Napoleon III.ak biztanleen galdeak entzun eta badia partez babestea baimendu zuelarik. Orduan, obra erraldoiak hasi ziren. Zokoako, Arthako eta Santa Barbarako itsas harresiak egin ziren, jadanik existitzen ziren hondo arrokatsuetan oinarrituz. Hala, Donibane Lohizuneko herria babestu zen. Eta opor leku berriaren igurikapenei erantzuteko, herria geltoki batez (1864an) eta merkatu estali berriaren inguruan auzo berri batez (1884an) hornitu zen, hotel handiak biltzen zituen hirigune historikoarekin eraikin segida osatuz.



XX. MENDEA, TURISMOAK ETA ARRANTZAK SUSTATUTAKO EKONOMIA

XX. mendean, estilo eklektikoa edo euskalduna zuten hotelak eta etxeak eraiki ziren hondartza bazterrean eta lehen muinoetan, Bordagainetik Haize Errotara. Robert Mallet-Stevens-ek 1928an Pergola konplexua sortu izanak eta Ziburuko La Réserve kabaret-jatetxe saihestezinak seinatzen zuten opor lekua goraldi betean zegoela.

Portuari dagokionez, bapore ontzien agertzeak eta bolintxaren teknikak (arraina inguratzeko sarea) sardinaren arrantzaren ekonomia suspertu zuten. Kontserbategiak loratu ziren eta langile anitz instalatu zen orduan Frantziako lehen sardina-portua zen herriko auzo berrietan (1938). Baina, tokiko ohitura horren gainbeheraren ondorioz, arrantzaleek Bizkaiko golko itsasbazterrak utzi eta Mauritania eta Senegalera joan behar izan zuten. 1959an, urruneko arrantza berri horri esker, Donibane Lohizune eta Ziburuko portua estatuko lehen atun-portu izatera pasa zen.

Bigarren mundu gerlaren ondotik –itsas ezpondetan oraindik blockhausen aztarnak daude–, Donibane Lohizune eta Ziburuko Herriko Etxeek hiri-hedapena bultzatu zuten, eta Urdazuri eta Zubiburu auzoak

eraiki zituzten lehengo lur intatsuetan. Hondartza bazterrean turismoko egoitzak eta akanpalekuak biderkatu ziren, masa-turismoari erantzuteko.

XXI. MENDEA, ERRONKA: ONDAREA BABESTEIA

Lurraldearen sektore ekonomiko garrantzitsuenetarik bat da turismoa. Gaur egun ere, turismoak du badiaren bizia moldatzen. Industria- eta merkataritza-jarduera pixkanaka-pixkanaka indartzen ari bada ere, portuko ekonomia oraindik bizirik da. Gaur egun, portuan helbideratuak diren ontzien jarduera nagusia legatza eta atuna arrantzatzea eta alga gorria biltzea da.

Donibane Lohizune eta Ziburuko herriak Ondare Gune Nabarmenez beteak dira. Hiri-hedapenak segitzen du, baina arkitektura-nortasuna errespetatuz eta zainduz. “Arte eta historia herrialdea” labela eskuratu zuten biek 2016an. Ordutik, bi herri historikoak herritarrekin, haur eta gazteekin eta bisitariekin beren ondarea transmititzeko lanean ari dira.

1. Arrantza-portua.

2. La Pergola kasinoa, uretako jokoetatik ikusita.

3. Donibane eta Ziburuko teiltuak, arrain saltokia eta Pirinioetako lehen mendiak.



LEKU BATETIK BESTERA: HIRI BARNEN ITZULIA

- 1 **Merkatu estalia**
Victor Hugo bulebar
 - 2 **Jondoni Joanes Batista eliza**
Léon Gambetta karrika
 - 3 **Lehenko Ingalaterrako hotela**
Ingalaterrako bizitegi eraikina - Garat karrika, 32
 - 4 **Desagertutako auzoa**
 - 5 **Esquerrenea etxea**
Errepublikaren karrika, 17
 - 6 **Lohobiague-enea edo "Luis XIV.aren etxea"**
Luis XIV.aren plaza, 6
 - 7 **Donibane Lohizuneko Herriko Etxea**
Luis XIV.aren plaza, 2
 - 8 **Joanoenia edo "Infantearen etxea"**
Infantearen karrika, 1
 - 9 **Portua**
 - 10 **Ziburuko itsasargia**
Jean Jaurès etorbidea, 1
 - 11 **Arrain saltokia**
Pascal Elissalt kaia
 - 12 **Errekoletoen komentua**
Errekoletoen plaza, 1
 - 13 **Ravel etxea**
Maurice Ravel kaia, 27
 - 14 **Pocalette karrika**
 - 15 **Jondoni Bixintxo eliza**
Pocalette karrika
 - 16 **Iturri zaharra**
Iturri karrika
 - 17 **Pilota plaza**
Camille Jullian plaza
 - 18 **Ziburuko Herriko Etxea**
Camille Jullian plaza, 4
-  **Turismo Bulegoa**





1 MERKATU ESTALIA

Merkatu estalia 1884an estreinatu zen. Louis Dubourthoumieu-Lavergne arkitekto baionarrak diseinatu zuen eraikina. 1864tik tren geltokiarekin hasitako hiri berri eta modernoaren bihotzean kokaturik dago. Garai hartako higiene betebeharre erantzunez eta Baltard estiloan oinarrituz, merkatu estalia egitura metalikoaren inguruan antolatua da. Eraikinak konposizio dotorea eskaintzen du: Larrun mendiko eta Crazannes herriko (Charente-Maritime) harriak, Baionako adreilu zuriak eta gorriak, berina leihoak eta Fumel herriko burdina urtuz egin elementuak. XX. mendearen hasieran, merkatu estalia handitu zen; Gélos arkitektoaren apaindura arteen itxurako atari bat gehitu zitzaion, zeinak gaur egun arrain saltzaileen salmahaiak hartzen baititu.

1. Merkatu estalia, merkatu egunez.

2. Jondoni Joanes Batista eliza eta bertako erretaula, hirugarren galeriatik.

3. Ingalaterrako hotela, 1910 inguruan.

4. Esquerrenea etxea eta bere begiratokia.

2 JONDONI JOANES BATISTA ELIZA

Monumentu historiko gisa sailkatua, 1931n. Baionako katedralako kartularioan aipatzen den XII. mendeko lehen elizaren hondarkin arkeologikorik ez da agertu gaur arte. Eraikinak, hala ere, Erdi Aroko parte garrantzitsu bat atxiki du: bere hutsarte geminatuak eta kanoi-zulo edo gezileihoak. XVII. mendean, Jondoni Joanes Batista eliza handitu eta goratu zen, garapen betean zen itsasbaterreko herriko fededun guziak hartzeko. Kontrarreformak moldatutako Lapurdiko erlijio-arkitekturaren lekuko saihestezina da eliza. Eliza barne zoragarria du. Lau galeria-estaik eta organo azpiko galeriak egituratzen dute. Kantorean, 1669an datatutako erretaula barroko erraldoia dago. Hogei estatua biltzen ditu, eta katixima gisa aurkezten da, irudi adierazkor eta koloretsuekin, eta mahatsondoz eta txoriz beteriko zutabe salomonikoekin. 1660ko ekainaren 9an, orduan arrunt obretan zen elizan, Luis XIV.aren eta Espainiako infantearen arteko ezkontzak donibandarren historia eguzki izpiz argitu zuen.

3 INGALATERRAKO HOTELA

1880an, pasealeku bilakatu zen babes-hormaren gainean, Ingalaterrako hotela eraiki zen. 1900ko hamarkada arte, hondartza bazterrean eraiki zen lehen jauregi donibandarra izan zen. Eraikin handia zen eta bow-windows behatokiek nabarmendu arkitektura klasikoa zuen. Garapen betean zen opor lekuan, luxuzko hotel hark eta bere eranskinak, hau da, La Plage hotelak, ehun logela eskaintzen zituzten. Hala, hotelak garaiko erosotasun berria saltzen zuen, 60 bainugela, egongela, neguko lorategi eta soto ospetsuekin. Hoteletik hurbil, herriko hondartzak eta hotelaren jabeek sortutako kasino txikiak (1952an suntsitua) bezero aberatsek bilatzen zituzten libertimendu guziak eskaintzen zituzten.

4 DESAGERTUTAKO AUZOA

XVII. mendean, badia hesten zuten babes naturalak poliki-poliki higatu ziren, eta, orduan, itsasoa Barrako auzoari erasotzen hasi zitzaion. 1707tik goiti zenbait babes-horma eraikirik ere, 1749ko eta 1782ko ekaitzek hamar bat karrika, ehun eta berrogeita hamar etxe eta Urtsulatarren komentua suntsitu zituzten. 1836tik goiti, orduan herritar arras gutiago zuen herrian,

Vionnois ingeniariak auzoa babesteko azken berme-horma eraikiarazi zuen. 1864tik goiti, badia itsas harrerien bidez behin betiko hetsi ondoan, babes-obra hori laster berrantolatu eta itsasbaterreko pasealeku bazterrezina bilakatu zen.

5 ESQUERRENEA ETXEA

Monumentu historiko gisa sailkatua partez, 1996an.

Esquerrenea etxea 1558an Espainiako tropen bipiltzeaz libratu zen Donibane Lohizuneko etxe bakarra da. Herriko auzorik zaharrenean dago. Errepublikak karrikatik ikus daitezkeen etxearen izkinako zaintzarako dorre altuak eta etxearen izaera erraldoiak ontzizjabe baten bizilekua izan zela gogora ekartzen dute. Jabearen aberastasuna etxearen aitzinaldean ikus daiteke harri pikatua, sareta-leihoak, ate inguruko harri handiak eta eguzki-dekoratuekin apaindutako kontsolen bidez atxikitako teilatu-hegal handiak.



6 LOHOBIAGUE-ENEA EDO “LUIS XIV. AREN ETXEA”


Monumentu historiko gisa sailkatua osoki, 2005ean.

Luis XIV.aren ezkontza ospetsuaren distira jaso baino lehen, 1643 eta 1649 artean eraikitako Lohobiague etxea hastapenetik bereizten zen Lapurdiko kode tradizionalekin hausten zuen arkitekturagatik. Ontzizabe baten etxe ederra zen, eta bi arkitektura-adierazpen desberdin uztartzen zituen.

Portuaren aldean, hegoaldean, aitzinalde ikusgarri eta funtzional bat du, dorreekin eta lehen terraza gisa irekita zeuden bi galeria-estaiekin. Plazaren aldean, berriz, alde ikusgarria ematen diona aitzinalde klasiko bat da, dekoratuek nabarmendua eta tronpa gaineko bazterreko bi dorretxok inguratua. Iparraldeko aitzinaldeak orduan hiri handietan loratzen ari ziren hotel partikularren antza du eta Luis XIII.aren estiloko elementuak ditu. Eraiki zutenetik, etxea beti familia beraren jabegoa izan da. Etxe historiko horretako estai noblea irekitzen die bisitariei. Frantziar estiloko etxeko sabaia zinez ohargarria da; tintaz margotutako eszena biblikoekin apaindua, eguneratu eta zaharberritu egin da.

7 DONIBANE LOHIZUNEKO HERRIKO ETXEA

Zinegotziek herriko kontseilua Jondoni Joanes Batista elizan antolatzen zutelarik, 1656an, jaunttoaren ordezkari Jean de Casabielhek “Herriko etxea” eraikiarazi zuen, zubiaren puntan eta Lohobiaga etxearen parean. Orduan, etxe hark mendebaldeko ikuspegia galdu zuen.

Herriko Etxea soiltasun handiko eraikina da. “U” forma du, eta gainaldean bolutadun frontoi bat du, ezkila batekin. XVIII. mendean, babes dike baten eraikuntza finantzatzeko, zinegotziek ordu arte pribatua izan zen eraikin horren zati bat saldu zuten. Luis XIV.aren zaldiestatua baten erreplika batek barneko patioa zaintzen du. Herriko kontseiluak estatua hori erosi zuen 1932an. Herriko Etxeak bertako artisten obrez osatutako herriko bildumen zati bat aterpetzen  Ramiro Arrue, Gabriel Deluc eta Edouard Solorzano.

1. Lohobiague-enea
tronpa gaineko izkinako dorretxo baten ikuspegia


2. Donibane Lohizuneko Herriko Etxea

3. Joanoenia
Italiako jauregi baten itxura

4. Arrantza-ontziak portuan

8 JOAOENIA EDO “INFANTEAREN ETXEA”

Monumentu historiko gisa sailkatua, 1925ean.

Portuaren irudi saihestezina da. Joannot de Haraneder ontzizabe eta kortsario aberatsak eraiki zuen, 1640an. Donibaneko paisaian ezohiko arkitektura eskaintzen du. Joanoenia etxea eraikin ohargarria  izkinako dorretxoak, ate zahar erraldoak eta harri pikatuz eta lilura adreiluz eraikitako aitzinaldea ditu. Baina, Joanoenia etxearen ezaugarri nobleak ez du ahantzarazi behar eraikina portuko jarduerari eskainia izan zela lehen-lehenik, bere zaintza-dorreak, galeriek edo itsasoko gaiez apaindutako marrazki diskretuek seinatlatzen duten bezala. Geroago “Infantearen etxea” izenez deituko zenak, tximinia erraldoia eta sabai margotuak zituzten apartamentuetan, Frantziako erregearen ama Ana Austriakoa eta Maria-Teresa Austriakoa hartu zituen, 1660an, errege-ezkontza famatuaren denboran.

9 PORTUA

Mendez mende, portuan joan-jin etengabeak egin dituzte balea ontziek, bakailao ontziek, kortsarioen ontziek, txalupek eta bapore ontziek, clipper motako ontziek edo kanaberadun atun ontziek. Historia hartaz oroitzeko, 1953an Ziburuko Hiribarren anaien ontziolak eraikitako Airosa ontzia monumentu historiko gisa sailkatu zen, 2002an. Oraindik ere itsasoan ibiltzen da hiru mastako ontzia. Hari esker, kostako arrantza tradizionala egin daiteke, bolintxan eta kanaberran.

Gaur egun, itsas arotzeriako trebetasunak bizirik dirau Ziburuko Marin eta Zokoa ontzioletan. Han, besteak beste battekuak edo couralin ontzixkak bezalako itsasontzi tradizionalak egiten dituzte. 2019tik, Marin ontziolak Albaren erreplika bat eraikitzeko ardura hartu du. Alba 14 m-ko sardina-txalupa bat zen, lurruntzia, 1907an egina, Letamendia ontzian.

Baina, hala ere, portuko paisaian kaskarot ezagunak falta dira, hau da, XX. mendearen hasiera arte bi hirietako eguneroko bizia animatzen zuten emazte arrain-saltzaile aho handiak.



10 ZIBURUKO ITSASARGIA

Monumentu historiko gisa sailkatua, 1993an. Donibane Lohizune eta Ziburuko itsasargiak 1870ean sortu ziren, portuaren pasaldia segurragoa izan zedin. 1937an badiaren irudi enblematiko bilakatu ziren, Itsasargien eta balizen zerbitzuetako ingeniari batengana jo ordez, itsasargiak eraikitzeko ardura André Pavlovsky arkitektoari eman zitzaizolarik. Departamenduko arkitektoa jadanik existitzen zen eraikinean oinarritu zen, baina eraikin modernista proposatu zuen, eta mugimendu neoeuskaldunarekin uztartu zuen. Ekialdeko izkinako gainaldeko terraza zaharraren barandaren zati bat kendu zuen, eta, hala, dorreari profil luze eta mehea eman zion. Gainera, dorrearen sartze eta ateratzeek bertikaltasun jokoareagotu zuten. Iparraldeko aitzinaldean, argia branka bular formako balkoiaren angeluekin jolasten da, eta horrek abilkiz azpimarratzen du eraikinaren itsas bokazioa.

1973an, itsasargiaren automatizazioaren ondorioz, 1937tik egiten zen zaintza eta hiru zaindari-familien lana amaitu ziren. "Pavlovsky itsasargiak" eraikin bereziak dira Frantziako itsasargien paisaia, eta, aldi berean, bi herrietako ikurrak dira orain.

11 ARRAIN SALTOKIA

1960ko hamarkadan ekonomia suspertu zen, Senegalgo urretan atuna arrantzatzeko kanpainei eta Mauritaniako kostaldearen parean sardina arrantzatzeko kanpainei esker. Orduan, portuan ehun ontzi baino gehiago, mila berrehun marinel eta hamabost kontserbategi zeuden. Biltegitratze azpiegitura faltagatik, Arrantzaleen eta kontserbategien sindikatuak Merkataritza Ganberari galdatu zion mila eta berrehun tona arrain kontserbatzeko gai izango zen hozkailu biltegi bat sor zezan. 1964an, Pierre Prunet monumentu historikoetako arkitekto buruak eraikin bat proposatu zuen. Modernoa eta funtzionala, eraikinak egitasmoaren betebeharrak osoki erantzun zien: teilatu alde inklinatu batean karga-igogailu bat zegoen, eta sei izozte-ganbera betetzeko eta husteko baliatzen zen. 1979an eraikina berrantolatatu eta Donibane Lohizune eta Ziburuko arrain saltoki bilakatu zen.

12 ERREKOLETOEN KOMENTUA

Monumentu historiko gisa sailkatua osoki, 2013an.

Portuaren kudeaketaren inguruko gatazka, 1609ko sorginkeria auzi eta Espainiatik kanporatutako moriskoen eta juduen etorreraren ondotik, 1611n, Errekoletoen ordenako fraideei dei egin zitzaizen, herritarren arteko harremanak bakea zitzaten. Portuaren erdian, bi herrietako zubiarri lotutako eta ustiatu gabeko uhartetxo batean, 1613tik goiti, frantziskotarren ordena erreformatuko fraideek komentua eraiki zuten. Frantziskotarren erlijio-arauen errespetu hertsia eta haien pobrezia botoari jarraikiz, soiltasun handiko komentua eraiki zuten. Eraikinak, halere, mustra handiko elementuak ditu: freskoz apaindutako bi areto, Frantziako Iraultzan Ziburuko elizara mugitutako erretaula barrokoa, Luis XIV.aren ezkontzaren ondotik Mazarinek eskainitako eta gainean karela erraldoia duen ur zilo jeinutsua. 1791n, Errekoletoen ordenako fraideak kanporatuak izan ziren, eta, gero, komentua kaserna, espetxe eta bazka-biltegi gisa erabili zen. Ondotik, XIX. mendearen hasieran, ondasun nazional bilakatu zen. 1821ean, kalosturak aduanetako zerbitzua ostatatu zuen. 1900etik

goiti, gazitze-lantegi gisa egokitu zen kapera. 2007an aduanak joan ondoan, Errekoletoen komentua zaharberritzeko xedea aurkeztu zen, bertan arkitektura eta ondarearen interpretazio zentro bat sortzeko.

13 RAVEL ETXEA

Monumentu historiko gisa sailkatua, 1993an. Esteban Etcheto ontzija-bearen etxe hau 1630ean eraiki zen. Ziburuko herri sortu berriaren botere ekonomiko gero eta handiagoa erakusten zuen. Izan ere, harri pikatuzko aitzinaldearen gailurrean, arkitektura flandriarraz inspiratutako frontoia du. Mazarin etxea izenez deitu zen garai batez, 1660an kardinala erregerreginen ezkontzarako etxe hartan egon zelako. Orain, "Ravel Etxea" deitzen zaio, 1875ean konpositore ospetsua han sortu baitzen.

1. Ziburuko itsasargia.

2. Donibane Lohizune eta Ziburuko arrain saltokia.

3. Errekoletoen klaustroa eta honen karela erraldoia 1920 aldera

4. Ravel Etxea Flandriako arkitekturaren oinarritua



14 POCALETTE KARRIKA

XIV. mendean eraikitako zurezko zubia pasa eta berehala, Pocalette karririk herri barnea partitzen zuen. Karrika honek arkitektura-aztarna ohargarriak ditu, nahiz eta inbasioek suntsiketa anitz eragin. Lapurdiko hiri-arkitekturako etxe tradizionalak ikus daitezke han: harrizko etxe behean, biltegiak edo saltokiak daude; eta gaineko partean, zurezko zatiek eta hegal-habeek egituratutako estaiak. Hauek dira ardatz historiko honetan ikus daitezkeen beste osagai interesgarri batzuk: marrazkidun zolata-habeak, perla-frisoek apaindutako eta ate inguruko harri handiek egituratutako kalostra eta atariak, bolutaz apaindutako kontsolen bidez atxikitako teilatu-hegal handiak.

1. Pocalette karrrikako atari baten xehetasuna perla-friso batek nabarmendua.

2. Jondoni Bixintxo eliza seroraenera daraman eskailera

3. Iturri zaharra 1920 aldera

4. Ziburuko Herriko Etxea.

15 JONDONI BIXINTXO ELIZA

Monumentu historiko gisa sailkatua, 1992an. Huescako Jondoni Bixintxori eskainitako eliza teilatu oktogonal atipikoa duen ezkira dorre batengatik nabarmentzen da. XVI. mendearen bigarren zatian eraiki zen, eta herriaren lehen askatasun urratsak (1603) gauzatzen ditu. XVII. mendearen bukaeran, gaur egungo neurrira handitu zen. Lapurdiko arkitektura erlijiosoaren adibide garbia da. Izan ere, eliza barne paregabea du, kantore goratu batekin eta hiru galeria-estairekin. Kantorean, Bakezko Ama Birjinari eskainitako erretaula barroko bat dago, zeinak Frantziako Iraultza arte Errekoletoen komentuko kapera apaintzen baitzuen. Gaur, eliza aitzina hilobi xabalek lauzatzen dute, baina, lehen, hilerria zegoen han; iparraldean, berriz, bigarren hilerria zegoen, buhame eta kaskarotenzat. Elizari datxekiola, andere seroraenea izeneko seroraren bizitegi zaharrak oroitazten du eliza mantentzeaz eta aktibitate kultureleki laguntzeaz arduratzen ziren emazte laiko horien zereginaren garrantzia.

16 ITURRI ZAHARRA

Monumentu historiko gisa sailkatua, 1925ean. Olheta Baita ontzizabearen etxe handiaren jabe goa zen. XX. mendearen hasiera arte, herri barnea urez hornitu zuen. 1676an eraikia izan zen. Obelisko baten gisa eraiki zen eta piramidioi batez inguratu zen. Bi ontziz, zaldi batez eta haritz batez apaindutako iturri handi horrek itsasbazerreko herriaren aberastasuna erakusten du. Gorago, Ziburuko ohiko eskailera-pasabide baten zolan, dekantazio askak Bordagaineko muinotik zetorren ura iragazteko ahala ematen zuen.


17 PILOTA PLAZA

XIX. mendean, zubia ibaian gora lekuz aldatzeak plaza publiko berri bat sortzeko ahala eman zuen. 1826an, Herriko Etxe berriaren parean, herritarren suskripzio bati esker pilota plaza bat egin zen. Pilota plaza honetan, Erdi Aroko pilota jokoen ondotik sortutako euskal pilotaren partidak jokatzen dira. Orduetik, esku pilota eta pala partiden ohiko soinua entzuten da plazan. Frontoia euskal paisaiaren funtsezko osagaia aisialdirako eta jendea elkartzeko toki egokia da.

18 ZIBURUKO HERRIKO ETXEA

1720an eraikitako Ditxo Baita egoitza handiaren barnean instalatu zen Ziburuko Herriko Etxea, 1830etik goiti. Bi hegalez inguratua den eraikin handi honetan patio bat dago, gainaldean frontoi bat duen atari handiak babesturik. Hemen, Maurice Ravel ziburutarraren irudi enblematikoa ikus daiteke, José Díaz Bueno artista espainiarrek 1964an egindako busto zizelkatu gisa aurkeztua.

LEKU BATETIK BESTERA: BADIAREN ITZULIA



- 1 **Semaforoa eta itsasargia**
Itsasargi karrika
 - 2 **Zokoako gotorlekua**
Passicot komandantearen etorbidea, 53
 - 3 **Itsas harresiak**
 - 4 **Bordagaineko dorrea**
Dorrearen karrika
 - 5 **Leihorra etxea**
Muskoa karrika itsua, 1
 - 6 **Ama Birjina Muskoakoa**
Pierre Benoit bulebarra
 - 7 **Maurice Ravel kaia**
 - 8 **Urdazuri ibaiaren zeharkatzea**
Charles de Gaulle zubia
 - 9 **Luis XIV.aren plaza**
 - 10 **Pasealekua eta bertako etxeak**
Jacques Thibaud ibiltokia
 - 11 **La Pergola**
Maurice Ravel plaza
 - 12 **Grand Hôtel**
Thiers bulebarra, 43
 - 13 **Santa Barbarako lurmuturra**
 - 14 **Van Bree kriptak eta kapera**
Santa Barbarako biribilgunea
 - 15 **Lorategi botanikoa**
Gaëtan de Bernville karrika, 31
- Turismo Bulegoa**



1

1 SEMAFOROA ETA ITSASARGIA

XIX. mendean hasitako Frantziako itsasbazterren argiztapen nazionalaren testuinguruan, 1844an, 12 m-ko altuerako dorre karratua eraiki zen Zokoako lurmuturrean, badiarako sarbidea errazteko. Gainera, 1863an, itsas ezponden gainean semaforo bat eraiki zen, eta 1934an urrunago berreraiki zuten, higadura mehatxuen ondorioz. 24 m gorako dorretik, semaforoak Higer lurmuturretik Aturri ibaiaren bokalerainoko itsas-, aire- eta lur-eremu zabala zaintzen du. Meteorologia-behaketetan parte hartzen du ere.

2 ZOKOAKO GOTORLEKUA

Monumentu historiko gisa sailkatua osoki, 2008an.

1624an antolatutako arrantza-portua babesteko, 1627an, Zokoako lurmuturreko uhartetxo arrokatsuaren gainean, gotorlekua eraiki zen. Baina, herritarrek ez zuten onartzen. Halere, ingelesen lehorreratze mehatxuen ondorioz, 1680ko hamarkadan gotorlekua berreraiki zen. Orduan, Ferry ingeniariak Erdi Aroko itxurako harresidun dorre baten inguruan antolatu zuen eraikina. Aldaketa anitzen ondotik, XX. mendearen hasieran gotorlekuak aduanak hartu zituen. Gero, bigarren mundu gerlan, alemanek okupatu zuten. Azkenik, André Pavlovskyk zaharberritu zuen, eta 1946tik 2002ra itsas bela eskola bat egon zen han. Egun, Euskal Hirigune Elkargoaren jabea da. Badiako paisaiaren monumentu berri bat eraiki da, eta ez ditu oraino bere sekretu guziak salatu.



2

3 ITSAS HARRESIAK

XIX. mendearen bukaera arte itxoin behar izan zen –Donibane Lohizuneko Barra auzoa ekaitz batzuek irentsi eta biztanleek herritik alde egin ondoan–, Napoleon III.aren laguntzari esker, bi herriak, azkenean, Zokoa, Artha eta Santa Barbarako itsas harresien gibelean babestu ahal izateko. 1864tik 1898ra, obra erraldoiak egin ziren hondo arrokatsuetan oinarritutako itsas arroka artifizialak sortzeko, eta horien gainean harresiak eraikitzeko. Itsas harresiak eraiki zirenetik, urtero, “bloke berrien ezartzea” izeneko kanpaina egiten da, eta, horren bidez, hamabost tonako hogeita hamar bloke sartzen dira dikeen oinetan. Izan ere, neguko ekaitzek dikeen gainazalak higatzen dituzte. Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko zerbitzuak aritzen diren lanean, han berean. XIX. mendetik, plataforma bloke-eramaile batek garraiatzen ditu blokeak. Prozesu ikusgarri hori udan egiten da, maren eta haizeen koefizienteen arabera.



3

4 BORDAGAINEKO DORREA

Monumentu historiko gisa sailkatua, 1987an.

XVII. mendean, Itsasoko edo Doloreetako Ama Birjinari eskainitako kapera zahar baten kontra dorre bat omen zegoen, gaur egun desagertuta dagoen gotorleku batean. Eraikinaren funtzio militarra Inperioa arte eta gero bi mundu gerletan mantendu zen. XIX. mendean, kanpoko otoiz-leku bat sortzarekin eraikinaren hastapeneko funtzio erlijiosoa gogora ekarri zen. 1912an, Saint-Germier arkitektoak eroria zen eraikina Erdi Aroko izpirituan berrantolatu zuen, dorreak funtzio turistiko berria izan zezan. Garai batez, dute pastizategia izan zen. Bordagaineko dorrea 2010ean herriaren jabegora pasa zen, eta, orduan, zaharberritu zen. Orain, erakusketak eta hitzaldiak eskaintzen ditu.

1. Itsas harresiak, Zokoako gotorlekua eta semaforoa.

2. Urean ezarriko diren itsas harresien babes-blokeak.

3. Bordagaineko dorrea.



5 LEIHORRA ETXEA

Monumentu historiko gisa sailkatua, 1995ean. Leihorra etxea Bordagaineko muinoan dago, itsasoaren parean, gordea. Joseph Hiriart arkitektoak eraiki zuen, 1926tik goiti, Caroline Signoret amaginarrebarentzat. Apaindura arteen aldeko aldarria da; bolumen simple eta klasikoak ditu. Aitzinalde nagusian, Jacques Gruberren berina leiho erraldoiak etxe barneko bolumen eta dekoratuen aberastasuna salatzen du. 2011n zaharberitutako patioa eta bainugela eraikin honetako altxorrak daude. Daum edo Schwartz artisauek trebeenez horien eraikuntzan lan egin zuten. Ozeanoari begira dago etxea, bere biribilguneetik. Gélos paisaia antolatzaileek diseinatutako «kanpoko gelak» ditu ere. Azkenik, apaindura arteen lorategien ohiko diseinu geometrikoa osatzen dute arrosadi, iturri aska eta frontoiak.

1. Leihorra etxea
biribilguneetik

2. Maurice Ravel kaiaren ikuspegia
Errekoletoen penintsula zaharretik

3. Besta eguna Luis XIV.aren plazan
1920 inguruan

6 AMA BIRJINA MUSKOAKOAKO

Napoleon III.ak eskatu zuen zaldiz ibiltzeko bidetik, Ama Birjina Muskoakoaren estatua ikus daiteke. Estatua honen azken bertsioak, 1948tik, André Pavlovsky arkitektoak diseinatutako obelisko bat du gainean, marinelek ozeanotik ikus dezaten. Ama Birjina Muskoakoak marinela babesten ditu. Parisko sozietate bati manatu zitzaion eta arrantza-patroiek eta haien eskifaiek hein handi batean finantzatu zuten.

7 MAURICE RAVEL KAIA

Urtubiako jaunaren kaltetan herri autonomo bilakatu zen Ziburu, 1603an; eta berehala garatu zen. XVIII. mendean, kaiaren sorrerak herri-aitzinalde bat eman zion, aitzindegai-gainak eta hegal-habeak zituzten etxe lerrokatu anitzekin. 1924tik 1937ra, orduan Baiona eta Hendaia lotzen zituzten tranbiaren trafikoak animatzen zuen kaia. 1930eko abuztuan, kaiari «Ravel kaia» izena eman zitzaion, herriko seme Maurice Ravel konpositorea hor izanik. Aspaldiko bide batean kokatua den portuaren aitzinaldea Ziburuko herriaren arkitektura-identitatearen osagai nabarmena da.

8 URDAZURI IBAIAREN ZEHARKATZEA

XIV. mendean, Ziburuko La Touche uvergne plazaren eta Donibane Lohizuneko egungo Gambetta karrikaren luzapenean, arku higikorak zituen zurezko zubi bat zegoen, Urdazuri ibaia zeharkatzeko. Frantziako Iraultzaren bezperan, ibaia gorago, harrizko zubi bat ezarri zen, baina Donibane Lohizuneko aldean bakarrik, Errekoletoen penintsulan. 1844an, portuko kaia handitzeko, zubi berri bat eraiki zen, oraingoan Errekoletoen kalostatik gora. Pasabidearen muga –zeinak Urdazuriren aldean arrantza-portua hesten baitzuen–, 1864an finkatu zen, trenbideko zubia instalatzean. Zubi horren gainean eraiki zen egungo Charles de Gaulle zubia, 1962an.

9 LUIS XIV.AREN PLAZA

Portuaren parean, zirkulazio-ardatz historikoaren muturrean, plaza nagusia porturaino hedatzen da Erdi Arotik. XIX. mende arte, plazaren erdian merkatua izan zen, baina, gero, 1883an, musikari kiosko bat ezarri zen, eta, orduan, aisialdiko jarduerak gaina hartu zuen. Plaza saihestezin hau ontzijaileen etxe ohargarrienez inguratuta dago. 1660an, erregeren gortea hor egon zen eta gertakari hark herria azkarki markatu zuen. Hala, plazari gomit ospetsuaren izena jarri zitzaion. Donibandarren topaleku naturala da Luis XIV.aren plaza, eta, beraz, besta guzietan gertalekua ere bada.



10 PASEALEKUA ETA BERTAKO ETXEAK

1838an, garai bateko Barra auzoa inguratzen zuen hareazko hesia harriz estali zen, eta, hola, herria babesteko berme-horma bat eraiki zen. Herri balnearioko itsasbazerreko aitzinalde ospetsuaren luzera osoan hedatzen zen. Hortaz, laster, donibandarren pasealeku bilakatu zen. Arkitekturaren zinezko katalogo irekia da: pasealekuari atxikitako zubixka pribatuak Belle Époque garaiko arkitektura – Gervaise etxea – eta arkitektura neo-euskalduna – Ugaïna eta Stella Maris etxeak – uztartzen ditu. Modernismoak markatutako La Pergola eraikinaren luzapenean, gerlaondoko eraikin kolektiboaren arkitektura trinkoak daude.

11 LA PERGOLA

1920ko hamarkadan, herri balnearioaren urrezko aroan, Herriko Etxeak pergolaz babestutako lehengo bainuak hobetu eta zerbitzu ugari bilduko zituen herriko eraikin berritzaile bat eraiki nahi izan zuen: bainuetxea, kasinoa, hotela, garajeak, saltokiak eta eremu publikoko galeria estaliak. 1923an, William Marcel arkitektoaren “Bainuen auzoa” proiektu erregionalista anbiziotsu eta ausarta hautatu zen, hasierako egitasmoa arindu ondoren. Beheko solairua egiten ari zen bitartean, azkenean, proiektua Robert Mallet-Stevens nazioarteko mugimendu modernistaren arkitekto saihestezinaren esku ezarri zen. Azken horrek arte modernoan oinarritutako forma soilak zituen ontzi-eraikin bat marraztu zuen. Arkitektura-eraikin hau desitxuratu zen, 1950eko hamarkadan, André Pavlovsky arkitektoak bi apartamentu-mailarekin eraikina goratu zuelarik. 1980ko hamarkadan, mini-golf zaharrea Hélianthal hotela instalatzeak hegoaldeko aitzinaldea aldatu zuen.



12 GRAND HÔTEL

Herri balnearioaren hastapenetako eraikin enblematikoa zen Modern hotela. 1906an berreraiki zen Terminus hotel zaharraren lekuan. Laster, jendarte mundanoaren opor ostatatze eskaera handiari erantzun zion. 1909an, ikuspegia zuzenean hondartzara zuen biribilgune batek Art Nouveau lerroak ekarri zizkion orduan Belle Époque garaiko arkitektura zuen eraikin tipiko honi. 1980an, Grand hôtel izena hartu zuen. 2015ean, hotelaren barnea azkarki berritu zen. Eraikinaren aitzinaldean, arkitektura-balnearioaren elementu bereizgarriak kontserbatu ditu, eta bereziki irekidura eta balkoi ugariak, bezeroak orduan sendagarritzat jotzen zen itsas aireaz baliatzeko.

1. Hondartzaren bazterrean, zubixkak dituzten etxeek garai bateko berme-horma dute oinarri.

2. Grand Hôtel eta bere biribilgunea ozeanoaren parean.

3. Itsasargia Santa Barbarako lurmuturrean.



13 SANTA BARBARAKO LURMUTURRA

1932an amaitutako berme-hormatik landa, Santa Barbarako lurmutur babestua hasten da. Handik, ikuspegi biziki ederra da badiara eta itsas ezpondetako flyschetara. Kapera zahar baten kokalekuan eta XVII. mendeko gotorleku ttipi baten hondakinen gainean, Itsasargi eta balizen zerbitzuek itsasargia eraiki zuten, 1870ean. Itsasargiaren profil atipiko eta zurixkaren ondorioz, Santa Barbarako eraikin ezaguna da. Atlantikoko Harresiaren defentsa-sistemaren lekukoa da hango pasealekua, eta blockhaus zaharrez beteta dago.



14 VAN BREE KRIPTA ETA KAPERA

Ingelesen golf zaharraren zati batean (1893-1915), Firmin Van Bree industrialari belgikarrak Santa Barbarako itsasbazterretako lurrak erosi zituen eta 1933tik goiti André Pavlovsky arkitektoari Santa Barbara, San Fermin eta Los Escudos etxeak eta Les Motels Basques opor-bizitegiak eraikitze eskatu zion. 1954an, pertsonaia atipiko horrek kaper bat eta kripta handi bat eraikiarazi zituen ere, eta 1960an han ehortzi zuten. Kaperak berinagile eta Lin^{ko} beneditarren estazioaren egilea zen Francis Chigot-en lantegietako bi berina leiho ditu. Kriptaren sarrerako atea, wenge zurezkoa, Firmin Van Bree-ek Kongorekin zuen harremana gogorarazten duten gurutze katangesez apainduta dago.

1. Van Bree kripta.

2. Lorategi botanikoa.

3. Donibane Lohizuneko itsasargia
Brokoa ontzitik

15 LORATEGI BOTANIKOA

Donibane Lohizuneko Lorategi Botanikoa Ar^{ako} itsas ezpandan dago, itsasoaren parean. 2002az geroztik publikoari zabalik da, eta tokiko itsasbazterreko flora ezagutzeko aukera ematen du. Euskal kostaldeko paisaia naturalak eta bertako landare enblematikoak ikus daitezke han, hala nola itsasertzeko pinudia, dunak edo ingurune hezeak. Gail^{eko} bildumek osatzen dute landare-mult^z “Bost kontinenteak”, “Lorategi baliosa”, “Labirinto botanikoa”... Bisita gidatuak, tailerrak, natura ateraldiak, hitzaldiak edo erakusketak antolatzen ditu. Horiei esker, ikusleak lorazaintzako teknika naturalei eta ingurumena babesteari sentsibiliza daitezke.



OHITUNAK ETA IDENTITATEAK



1 EUSKARA, EUSKALDUNEN HIZKUNTZA

Euskal Herria, batez ere «euskararen herria» da. Jatorri ezezaguna duen hizkuntza, bertakoa, Europako zaharrenetarikoa da. Lurralde honen nortasunaren oinarria da eta munduari buruzko ikuspegi bat adierazten du. Hala, toponimia, bizimoldeak edo gizarte-harremanak hizkuntza-ondare horren arabera bakarrik uler daitezke. Irakaskuntzako hizkuntza da ere. Ipar Euskal Herriko eskolen %60tan baino gehiagotan irakasten da. Badian, gure bi herrietan, euskarazko murgiltze-irakaskuntza eskaintzen duten ikastetxe edo ikastola bana dago. Irakaskuntza elebiduna eskaintzen da ere eskola pribatu eta publikoetan, ama eskolatik lizeora. Euskara egunero transmititu eta entzuten da eta kantuen, musikaren edo dantzaren bizitasunean eragiten du.

2 BESTAK ETA ZEREMONIAK

Kantu, musika, dantza eta zeremoniek badiaren egunerokoa betidanik alaitzen dute. XVI. mendean, Aita sainduak onartu zuen Donibaneko parrokiak Besta Berri dataz aldatzea, marinelek Ternuara joan aitzin besta horretan parte hartu ahal izateko. Duela bost mendetik hona, Frantziako estatuan berdingabeko tradizio hori Eguberri ondotik ospatzen da, Epifaniako igandean, Errege magoen adorazioa irudikatzen duten haurren prozesio baten bidez.

Urtean zehar beste hitzordu garrantzi batzuk daude, batez ere Donibaneko eta Bixintxoko bestak. Besta horiek ohitura zaharrak eta berrikuntzak nahasten dituzte, eta Donibane Lohizuneko eta Ziburuko portuaren nortasunaren ondare immaterialaren bizitasunaren froga dira.

3 BEDERATZIEN TALDEA

1864an trenbidea iritsi eta herria opor leku bilakatu ondoan, Ziburu ingurumen desberdinetatik etorritako artisten bilgune bilakatu zen. 1920ko hamarkadan, Bederatzien Taldea Ziburun finkatu zen, Pocalette karrikaren eta Anchochoury ostatu etxearen artean. Hauek ziren mugimendu inpresionista eta postimpresionistaren eragile zen talde honetako protagonista nagusiak: Ramiro Arrue, Labrousche, Ribera, Choquet eta Masson. Mota anitzeko euskal margolaritza erregionalista sortu zuten orduan, zeinak portuko eta baserri-munduko eguneroko bizitzako eszenen tratamenduan adierazten baitzuen bere nortasuna.

Beste margolari ospetsu batzuk babesleku goxo honetan egon ziren ere, hala nola Henri Matisse, zeinak 1940ko ekainean *Etxe barnea Ziburun* margotu baitzuen.

4 ZIBURUKO ELTZEGINTZA LANTEGIA

1919an, Floutier, Lucat eta Vilotte lagunek eltzegintza lantegi bat ireki zuten Urdazuri ibai bazterreko balea ontzi baten soto zahar batean. 1922an, Vilottek bere emaztearekin bakarrik segitu zuen, eta ibaian beherago tailerrak eta bizitegia biltzen zituen eraikin berri bat eraiki zuen. Fischer familiak erosi zuen lantegia gero, 1945etik 1995ean hetsi zen arte, eta bost langiletik hamabira pasa zen, eskaera handia baitzen orduan. Hirurogeita hamasei urtez, dekoratzaile anitz ari izan dira gresezko zeramikak ekoizten, eta Floutier margolariak inspiratutako lehen motibo klasiko neo-grekoak, euskal eszenak edo disko formako oroitarrien artea gogora ekartzen duen Suzanne Fischer-en Jorraila estiloa landu dituzte, hor.

1. Haurren danborrada

Donibaneko bestetan

2. Ramiro Arrue, *Hiru marinel atseden hartzen*,

1930 aldera

3. Ziburuko eltzegintza lantegia



5 GASTRONOMIA

Donibane Lohizuna eta Ziburuko portuko gastronomia tradizioak itsasoko produktuk ditu oinarri. Bi jaki aipa daitezke: ttoroa, arrainak eta itsaskiak nahasten dituen familia arrantzaleen zopa tradizionala, eta marmitakoa, lehen itsaso zabalean atunarekin kozinatzen zen errezeta. Eguneroko jaki horiek portuko sukaldaritzako ikur bilakatu dira.

Badiak pastizagileen espezialitate batzuk eskaintzen ditu ere, hala nola Adam etxeko makarroi famatua, Luis XIV.arentzat gozamina izan zena Donibanen egon zelarik. XX. mendean, Pariès etxeak, Kanouga karamelu eta txokolatezko gozokiarekin eta gero "Muxu" deitutako makarroiekin, jendearen papilak goxatu zituen. Berrikitan, Egiategia tailer berritzailearen itsaspeko ardogintzak badiaren paisaia gastronomikoa osatu du.

1. Arrantzako produktuak, merkatu estalian

2. Zesta-puntako partida


Donibane Lohizuneko Jai Alai pilotalekuan

3. Dantza tradizionalak

XIV.aren plazan

6 KIROLAK

Aspaldiko pilota motz eta luzeko jokoaren emaitza da euskal pilota. XIX. mendean garatu zen, bereziki. Orduan, bi herriek kirol honetan aritzeko lekuak eraiki zituzt pilota plazak, trinketeak, ezker paretak, eta, 1960an, Jai Alai bat. Euskal pilotak pala, zesta-punta, esku pilota, txistera eta beste aldaera anitz ditu. Egun, ezinbesteko kirola da. 1985az geroztik, Donibane Lohizuneko Jai Alai pilotalekuan, urtero, Zesta-Puntako Nazioarteko Txapelketak antolatzen dira. Itsasoari dagokionez, arrantzaren eta ontzigintzaren tradizioak, XIX. mendean, laket itsasketaren garapen betean, batteleku zaharren berrerabiltzea ekarri zuen. Orduan, bela eta arraunak erabiltzen dituen bost edo sei metro luzeko ontzi tradizional honi erabilera berria eman zitzaion. 1960ko hamarkadan, zaleek eta elkarteek bultzaturik, arraunketa garatu zen, eta, laster, hedadura hartzen hasi zen, 1993an antolatu zen lehen Teink Trofeoari esker.

«DONIBANE LOHIZUN  HERRIA INGURATZEN DUTEN ITSASO, MENDI ETA IBAIAK (...) MULTZO-EFERTU PAREGABEA SORTZEN DUTE. ETA ZIBURUKO PAGODAKO EZKILA DONREAK, KAI BAZTERNEKO ETXEEK (...) ETA BORDAGAINEKO MUINOAN BANNEIATUTAKO KARRIKEK KOADROA OSATU ETA AREAGOTZEN DUTE».

Léonce Goyetche, *Donibane Lohizune historiko eta pitoreskoa*, 1856.

Donibane Lohizune eta Ziburuko herriak Arte eta Historia Hiri eta Herrialdeen sare nazionalaren parte dira.

Kultura Ministerioak ematen duen labela da, eta gaur egun berrehun lurralde baino gehiago daude sarean. Ondorioz, lurraldeak beren ondarea ezagutarazteko bitartekaritza prozesu aktibo batean lanean ari dira.

Label honek gidari-hizlarien, arkitektura eta ondarearen animatzaileen eta burututako ekintzen kalitatea bermatzen du.

Antzinako aztarnetatik XXI. mendeko arkitekturara, Arte eta Historia Hiri eta Herrialdeek ondarea ezagutarazten dute, bere aniztasunean.

Ingurueta

Baiona, Paue, Biarnoko Pirinioak eta Akizeko lurraldeek ere "Arte eta Historia Hiri eta Herrialdeak" labela dute.

Argibideak

Donibane Lohizune eta Ziburuko arte eta historia herrialdea

Tel. : 05 59 51 61 97

patrimoine@baiestjeandeluzciboure.fr

Salmenta prezioa : 4€

ISBN : 978-2-9573055-1-3

